

## ZAZPIAK BAT

(1900)

[Pedro Mari Otaño](#)

(Zizurkil, Gipuzkoa, 1857 – Rosario, Argentina, 1910)

1/ Zazpi ahizparen gai den oihala ebakirik erditik, / alde batera hiru soineko, utzirik lau bestetik; / guraizeekin bereizi arren bakoitza bere aldetik, / ezagutzen da jantzi direla zazpiak oihal batetik.

2/ Oihaltzat har dezagun euskara, guraizetzat Bidasoa, / ibai koxkor bat besterik ez da, hutsa balitz itsasoa; / elkarren hurbil daude zazpiak, muga deitzen da Pausoa, / zergatik izan behar ez dugu familia bakar osoa?

3/ Arbola baten zainetatik sortzen diren landareak / bezala gara, Bidasoaren bi aldeetako jendeak; / berdinak dira gure jatorri, ohiturak eta legeak, / Ama Euskerak magal berean hazitako senideak.

4/ Ama Euskera! Bere semeak gu Ameriketara zenbat / aurkitzen garen! Eta urrutitik maiteago dugu hanbat; / hemen ez dago Bidasoarik eta beste trabarik han hainbat, / Ama maitea indartu dadin bizi bedi «Zazpiak Bat».

OTAÑO, Pedro Mari (1994). [Bertso guziak](#). Donostia: Auspoa Liburutegia 218. (189-190). or.